

MIGRATZAILEI
BURUZKO
AURREIRITZIEI
PLANTO!



MIGRATZAILEEI BURUZKO AURREIRITZIEI PLANTO!

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)



Diseinua eta maketazioa:

Maite Rosende

Itzulpena:

ARTEZ Euskara zerbitzu Koop. E

Inprimatzea:

Erreka Multimedia s.coop.

Laguntzaileak:



AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Oinarri kontzeptualak.....	5
2.1. Aurreiritzi kontzeptua.....	5
2.2. Migratzaile kontzeptua.....	7
2.3. Planto egiteari buruzko kontzeptua.....	8
3. Dinamika parte-hartzailea.....	10
4. Eskaerak eta proposamenak.....	13
5. Itxiera.....	16
6. Aipamen bibliografikoak.....	17



1. SARRERA

Historian zehar garai guztietan egon dira migratzaile fluxuak alde batetik bestera, eta lurralde orok hartu ditu beste herrialde edota kontinenteetatik ateratako herritarrak. Gaur egun migratzaile hartzaile diren herrialde asko migratzaile igorle izan dira. Fluxu hauek modu oso desberdinetan uler daitezke, eta hala interpretatuak izan dira gizartean ere. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK) fluxu hauek gizartearen aniztasuna handitzen dutela uste da eta, ondorioz, hartu-eman hauekin gizartea aberastu egiten dela. Honek ez du esan nahi aberastasun hau automatikoki eta erraz jasotzen duenik gizarteak. Fluxu hauek erronkak sortu ohi dituzte eta gizartearen maila guztietan, eta hauei erantzuteko ez da nahikoa banakakoek hartutako erabakiekin. Gizartearen erronka izanik, politika publikoen beharra islatzen da, eraikuntza etengabea dagoen bizikidetzaren bermatzeko erronka berriei –eta ihardespenei gabekoei– erantzun zabalagoa ematen baitiete, beharrak asez.

Esan bezala, ordea, fluxu hauek oso modu desberdinean uler daitezke, eta ukaezina da EGKren ikuspegia ez dela gaur egungo gizartean dagoen bakarra. Herrialde askotan ikusten da gizarteko arlo edo eremu batzuetan migratzaileekiko beste iritzi batzuk zabaldu direla, baita Euskadin ere. Iritzi hauetako batzuek bizikidetzaren oreka kolokan jartzen dute, eta horregatik da garrantzitsua politika publikoek emandako erantzunez gain, planteamendu arriskutsu hauei buruz gizarteko eragileek ere lanketa egitea. Euskadin gero eta identitate anitzagoak daukagu, eta eraikitzen ari den bizikidetzaren identitate hauek txertatzea erronka bat da, baita abagunea ere. Erronka berri hauei erantzuteko gazteen perspektiba ere kontuan izan beharrekoa da, etorkizuneko gizartearen parte garrantzitsu baitira, eta denen artean pentsatu beharko da nola eraiki aniztasunaren kudeaketa eta denon eskubideen errespetuan funtsatzen den bizikidetzaren.

Beraz, zergatik da garrantzitsua migratzaileei buruzko aurreiritziak lantzen dituzten proiektuak garatzea gaur egun Euskadin eta gazteekin? Lehenik eta behin gizarte honek bakean eta bizikidetzaren oinarriak finko ezarri eta sustatzeko helburua izanik, aniztasuna errespetatzea eta normaltasunez onartzearen beharra dagoelako. Euskal gizartera duela hamarkada askotatik (mende bat baino gehiago ere) etorri izan dira migratzaileak, bertatik ere jendeak (e)migratu duen bezala. Pertsona kopuruak eta fluxuaren noranzkoak aldatu badira ere, ezin da ukatu fluxu horrek historia luzea izan duela Euskadin. Eta enpatia eta giza eskubideen errespetua bermatu eta sustatu nahi bada, gizarte euskaldunak migratzaileen duintasuna errespetatu beharko du.



Helburu horrekin sortu da **Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!** proiektua, gaur egun Euskadiko gizartean agenda berriarekin erlazionatutako gaiak lantzeko interesari erantzuteko. Bizikidetzaren barnean aniztasun kultural edota erlijiosoaren kudeaketa egitearen interesa erakutsi da, eta ukaezina da aniztasun hauek orain arte isilpean edo piztu gabe zeuden eztabaidak sortu dituztela. Migratzaile fluxu hauek dakartzaten erronka hauek gazteei dakartzkien erronketan sakontzeko diseinatu da proiektu hau, fluxu hauek sorturiko aurreiritzien errealitatea aztertzeko.

Argitalpen honetan migratzaileei buruzko aurreiritziei buruzko kontzeptu eta terminologia batzuk aztertzen dira. Ostean, ekintzan jasotako informazioa azaltzen da hausnarketa sustatzeko helburuarekin. Erronka berri honi erantzuna emateko erreminta berriak sortzeko pauso txikiak egiten ari diren eragileen parte izan nahi du EGK-k, gazteen hausnarketa eta iritzien bozgorailu izanik.


2. OINARRI KONTZEPTUALAK

Migratzaile fluxuei buruz hitz egiten denean, eta baita hauei buruzko aurreiritziak lantzean, askotan kontzeptuak gaizki erabiltzen dira. Honek informazio nahasmena sortzen du, eta okerreko uste eta argudioak hauspotu ditzake. Gizarteko aniztasuna ukatu ezin den errealitate bat da, eta beharrezkoa da hau modu positibo batean kudeatzea bizikidetza egokia lortu nahi baldin bada. Horregatik da beharrezkoa oinarri minimo batzuk azaltzea, ostean landuko diren –eta ekintzan landu ziren– ideiak eta kontzeptuak sakonago aztertzeko.

Topaketa ekainak 6 ospatu zen Gasteizeko Landatxo Gizarte Etxean Gasteizeko Udalarekin, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusia eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailaren laguntzarekin. Topaketaren arlo teorikoan landu zena proiektuaren izenean oinarritu zen, hau da: aurreiritzi kontzeptua, migratzaile kontzeptua eta planto egiteari buruzko ideia.

2.1. Aurreiritzia

Esan bezala, proiektuaren zati garrantzitsua izan da oinarrizko kontzeptuak sinpleki azaltzea, erabilera egokia sustatzeko. Zentzu horretan, aurreiritzi kontzeptuari buruz hitz egiteko, lehenik eta behin aurreiritzia bera zer den lantzea da garrantzitsua. Horretarako Gorrotoaren Piramidea erabili da, grafikoki eta argi erakusten duelako aurreiritzia zer den eta askotan –oker– sinonimo bezala erabiltzen diren terminoekiko desberdintasuna zein den.



Iturria: University of North Carolina Charlotte

Aurreiritzia eta gorrotoa erlazionatuta badaude ere, bien artean desberdintasun eta distantzia handia dago. Piramide hau XX. mende hasieran sortu zen, baina gaur egun ere asko erabiltzen jarraitzen da. Arlo desberdinetarako erabil daiteke, piramide orokorra edo arloarekin zentratutako egoerekin osatu daitekeelarik. Oinarrian dauden estereotipoetan gorrotoaren diskurtso eta jarrera mota sinpleenak ageri dira, eta hauen larritasun maila handitzen doan heinean piramidean goraka igotzen doaz pertsonak igorritako ideia eta jarrerak.

Oinarrian estereotipoak egongo dira beti, gainean aurreiritziak, diskriminazioa, indarkeria eta puntan, kasurik grabeena jasoaz, genozidioa. Eskala batetik besterako muga nahiko lausoa izaten da kasu batzuetan, ideia edo ekintzaren arabera desberdindu behar delarik askotan.

Proiektu honen kasuan migratzaileei buruz dauden aurreiritziak dira landutakoak, eta honen barruan sartzen dira kolektiboen erridikulizazioa, ezizenak jartzea, bazterkeria edota irainak esatea. Aurreiritzi hauek, piramideak erakusten duen bezala, estereotipoak baino larriagoak dira. Honako jarrerak ulertzen dira estereotipo bezala: pertsona horri buruzko edota kolektibo bati buruzko esajerazioak sortzea, pertsona horien kultura edo erlijio desberdintasunari beldurra izatea edo sortzea, beraianenganako eraso txikiak, estereotipo hauek justifikatu eta zabaltzeko berdin pentsatzen dutenen oniritzia bilatzea edo gezurra den informazioa zabaltzea.

Argi gelditzen da, beraz, aurreiritzia estereotipoa baino grabeagoa dela eta estereotipoaren erabilera askotan errepikatzen denean aurreiritzira iritsi daitekeela. Adibidez: estereotipo horiek asko zabaltzeak ezizenak ezartzea ekarri lezake, erridikulizaziora eraman edo mesfidantza bat sortu eta pertsona edo migratzaileen kolektibo hori gizartean baztertua izatea.



Gaur egungo gizartea anitza izan arren pertsona askok dauzkate estereotipoak. Gainera, aurreiritzien edo estereotipoen barnean sailkatu daitezkeen ekintzak egiten dituzte edo egin dituzte. Honetaz konturatzea ez da gozoa, baina beharrezkoa da begiak irekitzea gizarte bezala aurrera egiteko eta bizikidetzat bat bermatzeko. Ildo berean, oso garrantzitsua da estereotipo edo aurreiritzi hauen jatorria bilatzea, eta horretarako pertsona bakoitzaren testuingurua begiratu behar da. Aurreiritzi hauek ulertzeko pertsona horri ideia edo diskurtso hori esan eta defendatzera zerk eraman duen begiratu behar da, hots, bakoitzak atzean duen motxila aztertu behar da.

Gorrotoaren Piramidera itzuliz, beheko bi fase horien arriskua litzateke askotan ezkutuan daudela. Maila kognitibo-emozionalean dauzka pertsona bakoitzak, eta horrek gizatasuna kentzen duen prozesu baten parte bihurtzen ditu. Parean dagoen pertsona edo migratzaile kolektiboari gizatasuna kentzen laguntzen dute aurreiritziek, eta aldi berean gizatasuna kentzen duen prozesu honek aurreiritziak sortarazten ditu.

Bestalde, aurreiritzi hauek ez dute soilik efektua aurreiritzia daukan pertsonarengan bakarrik baizik eta horren biktima den pertsona edo kolektiboarengan duen ondorioa ere kontuan izan behar da, bestek beste autoestimua jaitea edo antsietatea.




2.2. Migratzaile

Gizartean, batzuetan, migratzaile, etorkin, errefuxiatu eta asilo eskaria eginiko pertsona kontzeptuak nahiko era aldrebesean erabili izan dira, kasu batzuetan oker ere. Egoera desberdinetarako sortutako terminoak nahastea desegokia izateaz gain arriskutsua da, beste pertsona batzuegan aurreiritziak sortu ditzakeelako.

Argitu beharreko premisa da, migratzaile terminoaren kasuan, ez dagoela definizio juridikorik. Nazioarteko legediak ez du jasotzen zein baldintzak bete behar dituzten migratzaile diren pertsonak eta, horren ondorioz, erakundeen eskuetan gelditu da terminologia honek zein kasu onartzen dituen mugatzea. Gai hauek erreferente den Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak¹ sortutako definizioa erabili da argitalpen eta proiektu honetarako:

“Bere ohiko bizilekutik mugitu den pertsona, izan bere herrialdean barrena ala beste herrialde baten muga pasatuta, denboraldi konkretu baterako ala betiko, eta mugitzera eraman duen arrazoia kontuan izan gabe” (Migrazioen Nazioarteko Erakundea, 2019:130).

Beraz, migratzailearen definizioa argia da: migratzen duena, mugiarazi dion arrazoia kontuan hartu gabe, boluntarioki aterata den ala ez gogoan hartu gabe eta modu legezkoan ala ilegalean aterata den aintzakotzat hartu gabe. Migratzaile terminoarekin nahasten diren beste hitz batzuek ez bezala honek ez dauka definizio juridikorik—errefuxiatu terminoaren kasuan, adibidez, badago—. Baina Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak kontuan hartzen dituen ezaugarriak dira, orokorrean, bateratuta daudenak. Termino honek kategoria desberdinak bateratzen ditu bere barnean, besteak beste langile migratzailea, trafikorako erabilitakoa izan den pertsona migratzailea edota nazioarteko ikaslea adibidez.



Beraz migratzaile ezin da errefuxiatu, etorkin edo asilo eskaera egin duen pertsonaren sinonimo bezala erabili. Migratzaile kontzeptua zabalagoa da. Topaketan landutako aurreiritziak bere herrialdetik kanpo dauden pertsona horiekiko daudenak izan ziren, EAEn dauden pertsona migratzaile horiei buruzko aurreiritziak. Berdin zuen migratzaileak modu legezkoan edo ilegalean iritsi diren, ez zen erreparatu nondik eta zergatik etorri ziren edota legeak bereziki babesten dituen —errefuxiatu izateagatik, adibidez—. Landutako aurreiritziak migratzaileei buruz orokorrean daudenak izan dira.

¹ International Organization for Migration, Glossary on migration (itzulpen propioa).

2.3. Planto egitea

Planto kontzeptua aztertzerakoan, zertan datzan azaldu behar da. Planto egitea aurre egitea da, zerbaiteki-ko desadostasuna erakusteko modua da. Hainbat aukera daude aurre egiteko, eta horietako batzuk **Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!** topaketan azaldu ziren. Pertsona batek indibidualki eraman ditzake aurrera planto egiteko estrategiak, baita kolektibo edo erakunde publikoek ere. Jarrera bat da, egoera bati aurre egiteko motibazioa, bidezkoa edo egokia ez dela sinetsita.

Planto egiteko estrategia desberdinak daude, egoera bakoitzera moldatzea izanik egokiena. Egokitzeak kasu bakoitzaren idiosinkrasia kontuan izatea baimentzen du eta jokabidearen helburua gehiago enfokatu daiteke, aurreiritzi edo portaera aldatzera, konpontzera, ezabatzer... Orain arte garatutako estrategiak aztertuta aukera ugari daude:



● Kanpaina publikoak

Migratzaileei buruzko aurreiritzien kasuan, erakunde publiko batzuek erabili izan dituzte planto egiteko estrategia batzuk jada. Kanpaina publikoen bidez benetako informazioa –kontrastatua, objektiboa– zabaltzeko izan da aurreiritziei aurre egiteko, adibidez. Gizarte zibileko talde eta elkarte ugari ere, baita Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek ere, programa eta kanpaina ugari jarri izan dituzte martxan Euskadiko txoko ugarietan; publiko eta adin tarte desberdinei bideratuz. Aurre egiteko estrategietako bat beraz erakundeek egindakoa da, hau da, datu zehatzekin zabaldutako informazio faltsu hori –aurreiritziak sortzea ahalbidetu edo gutxienez errazten duena– ezeztatzea.



● Zalantza sortzea

Beste batzuen helburua aurreiritzi hori duen pertsonarengan duda sortzea da. Estrategia honen bitartez norberak aurreiritzia duen hausnartzea da oinarria, eta behin hori existitzen dela ikustean ea aurreiritzia egokia den ala ez hausnartuarazi egiten dio estrategia honek.



● Enpatia erakustea

Planto egiteko beste estrategia bat enpatia erakustea da, kasu honetan konplexuagoa gerta daitekeen arren. Aurreiritzia duen pertsonak, orokorrean, badaki edo suma dezake aurrean duen pertsona berarekin bat datorren edo ez, beraz, ez du espero izaten perspektiba desberdina duen norbaitek enpatia erakustea, ez du bere partetik interes hori espero. Estrategia honen helburua pertsona horrek aurreiritzi hori izateko dauzkan motibazio edo arrazoiak identifikatzea da, aurretik azaldutako bi estrategien aurreko pauso bezala erabiliz kasu batzuetan.

● ZAS!-en estrategia

Azken urteotan argi ikusi da Euskadi mailan badagoela aurreiritzien aurka egiten duen talde estrategia garrantzitsu bat: Zurrumurruen Aurkako Sareak² (ZAS!) sortutako estrategia. Europan zehar denbora zera-maten korranteetara batu eta zurrumurruei eta aurreiritziei planto egiteko hainbat ekintza antolatu dituzte, denak “Communication for Integration – C4I” europar proiektuaren baitan. Sare honen parte dira Euskadiko hainbat udal, hala nola Bilbokoa, Gasteizkoa edo Getxokoa. Bakoitzak bere udalerrian zurrumurruen aurkako kanpainak abiarazi ditu, eta gazteengan egin beharreko lana azpimarratu dute, besteak beste.




² Informazio gehiago nahi izanez gero <http://zurrumurrurikez.eus> da webgunea

3. DINAMIKA PARTE HARTZAILEA

Migratzaileei Buruzko Aurreiritziei Planto! jardueraren helburua gaur egun Euskadin dauden aurreiritziei buruz hitz egiteko espazioa sortzea izan zen. Gazteek gaur egun bizikidetzaren alorrean dauzkaten eta hartu nahiko lituzketen konpromisoak eta etorkizunerako dituzten desirak buruz hitz egiteko aukera eman zitzaizkien parte-hartzaileei.

Horretarako, eta azalpen teorikoa oinarri bezala ezarri ondoren, bizikidetzak zer den eta aurreiritziek honengan zein ondorio izan ditzaketen identifikatzeko lanketa egin zen. Aurreiritziak nondik datozen eta hauspotzen dituzten faktoreez jardun ostean, etorkizunera begira egin beharrekoa eta erronkak landu ziren. Parte-hartzaileek hausnartutako gaiak eta ideiak jaso eta migratzaileei buruzko aurreiritzien gainean hitz egiteko aukera dagoenean asko dagoela esateke argi gelditu zen. Esandako ideiak jaso eta eztabaidarako tarteak ireki ziren.

Eta bizikidetzak nola definitzen dute? *“Bizikidetzak ez da baterako existentzia, hori argi izan arte ez da bizikidetzak lortuko”*. Izan ere, bertaratuentzat denbora behar duen lana da: *“Ikasketa jarraiko prozesua da bizikidetzaren eraikuntza. Prozesu bat izanik etengabe aldatzen da eta uneko egoeretara moldatu behar da egokia izan dadin”*.



Aurreiritziak badaudela bat zetozen parte-hartzaileak eta, **aurreiritzi batzuk berriak** diren arren, orokorrean azken urteetan zehar errepikatu egin direla adierazi zuten. Aipatutako aurreiritzien artean babesik gabeko adin-txikiko etorkinei –MENA bezala ezagutzen direnak– buruzkoak, adibidez, berriak direla ondorioztatu zen. Topaketan aipatutako hausnarketa izan zen aurreiritzi hauek berriak izatearen arrazoiak, akaso, azken hilabete batzuk arte adin txikiko migratzaile hauengan atentzioa jartzen zuten pertsona gutxi egotea izan daitekeela.

Aurreiritzi hauen sorreran eragina izan duten faktoreak ere identifikatu ziren topaketan: *“Krisi ekonomikoaren eragina azpimarragarria izan da, horren ondorioz diskurtsoak aldatu egin ziren”*. Honek, gainera, migratzaileen kolektiboaren estigmatizazioa ekarri zuen: *“Denboran zehar luzaroan iraun duten arren, migratzaileen profila moldatuz joan den heinean, moldatu eta egokitu dira aurreiritziak”*.

Migratzaileei buruzko aurreiritziak zabaltzeko **sare sozialen paperari** buruz ere jardun zen: *“Bolbora dira, pantaila baten atzetik oso erreza da metxa piztea eta aurreiritzi hauek oso azkar zabaltzea”*. Baina dena ez da ezkorra: *“Sareek, hala ere, aurreiritziei planto egiteko ere balio dezakete, baina horretarako erreferenteak lortu eta portaera egokiak eredugarri bezala azpimarratu behar dira”*. Bide horretan, garrantzitsutzat jo zuten erreferente onen sorrera aurreiritziei planto egiteko. Gainera, *“gazte migratzaile askok sareekin erraztasuna izanik, erreferente bihurtzeko aukera handia dute”*, eta hori sustatu eta babesteko beharra nabaritu zuten bertaratutakoek, sareak gazteentzako planto egiteko erabilgarriak direlakoan. Zentzu horretan, zailago ikusi zuten parte-hartzaileek jende helduagoaren aurreiritziei sare sozialekin aurre egitea.

Zabalpenarekin estuki lotuta, **komunikabideen papera** nabarmendu zen: *“Informatu ordez desinformatu egiten da askotan, informazioa filtratzeko eta aukeratzeko irizpideak behar dira”*. Bertaratuen ustez komunikabide handi eta ofizialen aurrean, txikiek bakarrik erakusten dituzten egoerek aurreiritziei aurre egiteko balio handia dute eta, horregatik, gainerako kanalen bidez ezagutarazteko eskaria luzatu zuten. Sentsazionalismotik at, tokiko istorioak eta testigantzak gehiagotan atera ohi dira komunikabide txikiagotatik, eta hori aurreiritziak deseraikitze oso erabilgarritzat jo zen.


Gazteen eta baita adin txikikoen kasuan kuadrilen eta lagun taldeen paperak duen garrantzia azpimarratu zen, batez ere aurreiritzia jasan duen migratzaile gazteen kasuan. Hauek taldearen babesa izanik aurreiritziei aurre egiteko erraztasun gehiago dituztelako. Baina, parte-hartzaileen artean nerabegaroko lagun taldeetan ematen den banaketei buruz hitz egin zuten: *“Adin batetik aurrera migratzaileek aukera gehiago dituzte batez ere migratzaileez eratutako lagun taldeak egiteko eta, honek, estigmatizaziora eramateko arriskua dauka”*. Zentzu horretan, gazteek lanketa egitearen beharra mahaigaineratu zuten, horrelako egoeren aurrean aktibo izan daitezen aurreiritzien sorrerari aurre egiteko.



Estrategiaz hitz egiterakoan **ahotsa ematearen beharra** nabarmendu zen: *“Esperientzia pertsonalak ezagutarazteak jendeak ikuspegiak zabaltzeko balio du, bai aurreiritziak jasan dituzten pertsona edo kolektiboenak eta baita hauei planto egin dieten pertsonenak ere”*. Hau proiektuak diseinatzeko, eragileekin parte hartzen, pertsonalki erabaki hori hartzen izan daiteke. Bereziki garrantzitsua da migratzaileei eta beraiekin erlazioa dutenei ere hitz egiteko aukera ematea, askotan anonimatoan geratzen baitira, desberdin ikusarazten dira. Migratzaileei ahotsa emanda antzekotasunak eta desberdintasunak topatzeko aukera ematen da, pertsona bera ezagutuz eta estereotipo eta aurreiritziak apurtzen lagunduz. Egia da, baita ere, askotan ez dela anonimatu horretatik atera nahi izaten, ez dela atentzio-foku izan nahi, eta horrek estrategia hau tratatzen duela. Migratzaileei edo planto egin duten pertsonen ahotsa emateak beren ingurukoaren artean –familia, lantaldea, lagunak...– erreferente bihurtu ditzake, eredugarri bihurtuz egoera hauen aurrean zer eta nola egin jakiteko. Gertuko norbaiten esperientzia ezagutzeak aukera handiagoa ematen du aurreiritzien aurkako lanketa egiteko.

Migratzaile definizioa lantzerakoan ikusi da oso egoera desberdinetan dauden pertsonak migratzaile definizio barruan sartzen direla. Honek eztabaida sustatu zuen: *“Jatorriko herrialdearen arabera migratzaileei ematen zaien tratua asko aldatzen da”*. Eta ez hori soilik, aurreiritziak zein estereotipoak ere jatorriaren arabera sortzen direla mahaigaineratu zen. Gazteen artean ere hau errepikatzen den jarrera da, beraz gizarte osoarekin egin behar da deseraikitze lanaketa.

Izan ere, solasaldiko parte-hartzaileek nabarmendu bezala, **arazoa estrukturala da** eta errealitatea oso konplexua, etengabe eraldatzen dena: *“Ez dago konponbide edo estrategia egoki bakar bat, kasuz kasu moldatzen joan behar da gehienetan”*. Hori dela-eta, aurreiritzien aurkako lana etengabekoa izan behar da, unean uneko egoeretara ahalik eta azkarren moldatuz eragina azkarrago nabari dadin. Horrek, aldi berean, konplexutasuna gehitzen dio.




Aurreiritziei aurre egiteko estrategien pisua askotan eragileek izan dute, nahiz eta instituzioak ere inplikatu izan diren lan honetan. Eragileek egindako aurrez aurreko estrategien osagarri ikusten da **instituzioek egingdako lana**: *“Ez da edo bata edo bestea, baizik eta biek batera egin behar dute lan”*. Elkarlan hori sustatzea beharrezkoa dela adierazi zuten, batez ere egoera edo une konkritu batzuen aurrean. Esaterako hauteskunde garaietan migratzaileei buruzko estereotipo eta aurreiritziak hauspotzean bozkak mugitzeko, portaera hauek bizikidetzari egiten dioten kaltea kontuan izan gabe. Biak eskutik joatea zaila izan daiteke egoera batzuen aurrean, baina hori lortzeko esfortzua egitearen alde azaldu ziren gazteak.

Gaur egungo egoera nolakoa den ikusi eta nondik datorren aztertu ostean etorkizunari begira etorkizuna eraikitzeke egin beharko diren esfortzuak identifikatzea izan zen ekitaldiaren helburua. Bakoitzaren esperientzia oinarri izanda, hemendik aurrera zer egin beharrekoa izan zen mintzagai, parte-hartzaileek proposatu eta eskatzen zutena ezagutzeko. Ondorengoak izan zen emaitza.

4. ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK

Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto egiteko asko dago oraindik, batzuk norberaren ardura direlarik eta beste batzuk gizartearenak. Bakoitzak erabaki indibidual edota jarrera aldaketa pertsonalak egin ditzake, baina beste aldaketa batzuek gizartearen inplikazioa eskatzen dute. Gazteen etorkizunerako eskaera eta proposamen ugari jaso dira:




● Autokritika


Norberak bere bizkarrean duen motxilaren azterketa egitea beharrezkoa da, autokritika egin ostean besteen aurreiritziei planto egiteko. Lanketa hau pribatua izango litzateke, garrantzitsua delarik barnean dagoenari begirada bat botatzea. Bakoitzak epe ahalik eta laburrenean egin beharreko hausnarketa hau egiteko konpromisoa hartzea garrantzitsua da, aurreiritziei aurre egiteak zintzotasuna eskatzen baitu.

● Gazteei zuzendutako proiektuen beharra

Aurreiritziei planto egiteko orain arte antolatutako proiektu eta dinamikak publiko orokorrari zuzenduak egon dira. Gazteei bereziki zuzendutako proiektuen beharra sumatu da. Hainbat kasuistika hartu behar dira kontuan gazteentzako proiektuak garatzerakoan, erabiltzen dituzten erremintak desberdinak izan daitezkeelako. Aurre egiteko estrategia desberdinak erabiltzen dituzte gaur egungo gazteek –sare sozialak adibidez–, eta parte-hartzeko moduak ere desberdinak dira. Era berean, gazteen ahotsa etorkizuna eraikitzerakoan kontuan izatearen beharra azpimarratu da, gazteek esaten dutenak oihartzuna izan dezan. Horretarako hitz egiteko espazioak eman behar zaizkie eta, ostean, bozgorailuak jarri gizarteko beste sektoreek ere entzun dezaten.




● Erreferenteen beharra



Zaila suertatzen da batzuetan migratzaileei buruzko aurreiritziei aurre egitea. Hala, beharrezkotzat jo zuten parte-hartzaileek erreferente gehiagoren beharra zein jarrera hartu behar den jakiteko. Behar hau hainbatetan errepikatu zen jardunaldian, gazteekin aurreiritzien aurkako lanketa egiteko orduan eredugarriak diren jarrerak edo/eta pertsonak asko laguntzen dutelako. Bestalde, erreferenteak sortzeak, aurreiritzi hauek pairatzen dituzten pertsonen erremintak emateko balio du ere. Beraz funtzio bikoitza egiteko balio duten erreferenteak aurkitu behar dira, eta haien jarduna ahalik eta gehien zabaldu.

● Praktika egokiei jarraipena ematea

Erreferenteak topatzea bezalako praktika hauek jarraipena izatea eskatu zuten. Horrelako gauzak errepikatuz edo denboran jarraikortasuna emanez ondorioak lortzea errazagoa baita. Parte-hartzaileek positibotzat jo zuten topaketa eta dinamikak egitea, baina horien ondoren jarraipenik ez ematearen eta aukera ondo ez aprobetxatzearen arriskua identifikatu zuten.




● Hirietatik haratago ere lanketa egitea




Herri txikietan lanketa hau egitearen beharra nabaritu zuten, migratzaileei buruzko aurreiritziei aurre egitea erronka handiagoa delarik hirietatik kanpo. Horrelako proiektuak bertara eramatearen beharrari erantzuna emateko eskatu zuten parte-hartzaileek. Zentzu horretan, udal txikiek lanketa egin eta politika publikoak garatzea eskatu zuten, baita gizarteko erakunde desberdinek aurrera eramaten diren egitasmoak lurraldeetan zehar zabaltzea ere. Ondo funtzionatzen duten estrategiak erreferente bezala erabili eta zabaltzeko eskaera egin zuten.

● Zeharkakotasunaren beharra

Aurreiritziei planto egiteko erabiltzen diren estrategia eta proposamenek zeharkakotasuna izan behar dutela aldarrikatu zuten. Zeharkakotasun horretan aurreiritzi-haztegi bihurtu daitezken egoerei angelu desberdinetatik egin behar zaie aurre. Babesgabe gelditzeko arrisku handiagoa duten migratzaileei gizartearen arlo desberdinetatik babesa ematea eskatu zuten partaideek.




● Proiektu malguak



Etengabe aldatzen diren aurreiritzien aurrean moldatzeko malgutasuna eta erraztasuna beharrezkoa da. Instituzioetatik aurrera eramaten diren proiektuetan hori falta dela aitortu zen. Erreakzioa azkarra emateko beharra sumatzen zuten bertaratutakoek, baina hori instituzioetan lortzearen konplexutasuna ere azpimarratu zuten. Eragile eta antolakundeek egindako proiektuen erabilgarritasuna nabarmendu arren, erakunde publikoen estrategia politikoetan gai honekiko hausnarketa sakonagoa egiteko eskaria ere zabaltu zuten.

● Espazio gehiagoren beharra

Egindako beste eskaera nagusienetako bat bizikidetza sustatzeko edo errazteko espazio gehiagoren sorrera izan zen. Espazio horiek duten efektua azpimarratu zen, sentsibilizazio lana egiten laguntzen dutelako eta, honek, aurreiritziei planto egitea errazten duelako. Gazteen ahotsa etorkizuna eraikitzerakoan kontuan izatearen beharra nabarmendu zen, gazteek esaten dutenak oihartzuna izan dezan. Horretarako hitz egiteko espazioak eman behar zaizkie eta, ostean, bozgorailuak jarri gizarteko beste sektoreek ere entzun dezaten.



● Paternalismorik ez




Migratzaile hauekiko aurreiritziei paternalismoarekin aurre egitearen arriskua plazaratu zen, aurreiritziei planto egiterakoan beraiekin elkarlana egitearen garrantzia azpimarratuz. Nagusitasuna edo hierarkizazioa ekarri dezaketen egoerak saihestu behar dira, estrategia ahalik eta parekideena sortuz. Mugak non dauden zehaztea zaila izan daiteke, baina proiektu berriak diseinatzeko orduan honi atentzioa jartzearen beharra nabarmendu zen.

● Gizarte osoaren inplikazioa

Aurreiritzi hauei aurre egiteko gizarte osoa inplikatu behar da. Zentzu horretan, hirigintzan lan asko egiteke dagoela aipatu zen, eta auzoetan ghettoak sortzearen arriskuaz hitz egitearen beharra azaldu zen. Euskadiko herri eta hiri batzuen eskoletan gertatzen ari den segregazio egoeraren larritasuna mahai gainean jartzearen beharra azaldu zen. Nahiz eta oso erronka handia izan, lantzen hasi beharreko gaia da aurreiritziei aurre egiteko eta baterako existentzia baten ordez bizikidetza bat lortzeko.



● Gizarte-egituren garrantzia



Saretzean sortzen diren erlazio eta kontaktuek ikuspuntuak eta jarrerak aldatzen dituztela azpimarratu zen. Aurreiritzi hauei aurre egitea nori dagokion ezin da zehaztu, gizarteko aktore desberdinen eskuetan baitago, baina saretzean aktore desberdinengana iristeko aukera paregabea ematen dela aitortu zen. Hori sustatzea eskatu zen, bai instituzioetatik eta baita elkarte, antolakunde... artean. Hala ere, migratzaileei buruzko aurreiritzien aurrean erantzuna behetik gora etortzearen eskaera zabaldu zen, instituzio edo antolakunde handien mantsotasuna eta burokraziak kaleko egoeratik urruntzeko arriskua daukalako.

5. ITXIERA

Gazteen interesaren, eskubideen eta arduren alde egiten du lan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK). Gazteentzako bozgorailu eta plaza izateko lan egiten du EGK-k, eta horretarako antolatzen dira **Migratzaileei buruzko aurreiritziei planto!** bezalako proiektuak. Gazteei interesatzen zaizkien gaietan parte hartzeko –eta protagonismoa izateko– aukera eman behar zaie, interesa badagoelako baina plazak falta direlako. Bakean eta bizikidetzan oinarritutako gizarte bat eratzekeo beharrezkoa da horrelako ekimenak antolatzea, migratzaileei buruzko aurreiritzien aurrean gazteek esan nahi dutena jasotzeko.

Txosten hau ateratzea da EGKren ekarpena planto egiteko jarrerak ezagutarazteko, honen beharra hedatzeko, kontzientzia zabaltzeko eta ekitaldian egindakoa laburtzeko.



6. AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Council of Europe - Communication for Integration (C4I). (2015), Cities free of rumours: How to build an anti-rumour strategy in my city. Strasbourg.

De Torres, Daniel. (2011) Guía práctica para combatir los rumores y prejuicios sobre la diversidad cultural. Barcelona: Ajuntament de Barcelona.

Giménez, Carlos eta Malgesini, Graciela. (2000). Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad. Madrid: Los libros de la Catarata.

International Organization for Migration. (2019). Glossary on migration, IML Series No. 34.

Madero, Angel; Montero, Jose Antonio eta Sánchez, Ignacio. (2014). Stop Rumores Manual Antirrumor. Federación Andalucía Acoge.